






## Daniel Innerarity

Filosofia politiko eta sozialeko katedraduna, IKERBASQUE ikertzailea Euskal Herriko Unibertsitatean eta Gobernantza Demokratikoaren Institutuko zuzendaria. Florentziako Europako Unibertsitate Institutuko Adimen Artifiziala eta Demokrazia katedraren titularra da. Filosofian doktorea. Bere liburuen artean honako hauek nabarmendu daitezke: *Un mundo de todos y de nadie*; *La democracia del conocimiento*, Saiakerako Euskadi Saria 2012; *La humanidad amenazada: gobernar los riesgos globales* (Javier Solana-rekin elkarlanean); *El futuro y sus enemigos*; *El nuevo espacio público*; *La sociedad invisible*, Saiakerako Espasa Saria 2004; *La transformación de la política*, Saiakerako III Miguel de Unamuno Saria eta Literaturako Sari Nazionala Saiakera alorrean 2003; *Ética de la hospitalidad*, frantsesezko filosofia libururik onenaren Sociedad Alpina de Filosofiaren Saria 2011; *La política en tiempos de indignación* (2015); *La Democracia en Europa* (2017); *Política para perplejos* (2018), Saiakerako Euskadi Saria 2019; *Una teoría de la democracia compleja* (2019); *Pandemocracia* (2020) eta *La sociedad del desconocimiento* (2022).

## Aforismoak



1

**ZAHARTZEN** ari direnek beren egoera itzulinguruz eta eufemismoz betetzen dela ikusi dute, egoera gogaikarrizat hartua ez izateko edo haiek ez gogaitzeko. Hirugarren adinari buruz ari gara, adinekoei buruz, zaharrei edo atso-agureei buruz ez hitz egitearren, eta pertsona horientzako unibertsitateko irakaskuntzari esperientziaren gela deitzen zaio. Horrela jarraitzen badugu, urte gehiago izateak dakartzan eragozpenak arrazoirik gabeko kexatzat hartuko dira.

2

**ADINARI** buruzko egia bakarra da goraka egiten duela, harik eta une batean betiko uzten dion gora egiteari.

3

**BATEK** aurrera egin ahala, etenuneak gutxitu egiten dira, jarraitutasuna handitu egiten da, eta are jarraitzeari ere utziko dion unera hurbiltzen da.

4  
**ZAHARTZEAK** duen okerrena aurreikusteko modukoa izatea da, urte gutxi izanda ere gerta daitekeen zerbait.

5  
**ADINA** handitzearekin batera, beste gaitasun batzuk ere handitu egiten dira beti, eta esan dezakegu zahartzaroa hasten dela handitzen diren bakarrak eragozpenak direnean.

## Aforismoak

6  
**GARRANTZITSUENA** ez dela tamaina dioen esaldiak bizitzaren luzerari ere egiten dio erreferentzia.

7  
**BIZITZA** luzatu daiteke, baina tenkatzea beste kontu bat da.

8  
**LUZATU** baino egiten ez den bizitza batek ez du zertan giza bizitza izan.

9  
**BIZITZAK** ez du asko irauten betetasunean dagoenean eta gehiegi luzatzen da gainbeheran.

10  
**BIZITZAREN** lehen erdia denbora urri bat kudeatzen ematen dugu gizakiok, eta bigarrena denbora gehiegirekin zerbait egiten saiatuz.

11  
**ADINEKO** pertsonak ikastera gonbidatzen baditugu, horrek agerian uzten du gaur egun, beste garai batzuetan ez bezala, jakintsu bihurtzeko ez dela nahikoa denbora pasatzen uztea. Gizarte tradizionaletan, bizardun zahar batek irudikatzen zuen jakinduria; gizarte hipermodernoetan, berriz, neska koxkor batek ikasteko duen moldaerraztasuna da adimen-adierazpenik onena.

12  
**BIZITZA** atzeraka pentsatzen da, baina aurrerantz bizi da, Kierkegaard-ek dioenez. Kontserbadoreek baietz esango lukete, baina etorkizuneko bizitzari bizitako bizitzaren esperientziarekin heldu behar zaiola. Horrela argudiatuz, badirudi ez dutela ulertu iragan ezagunaren jarraipen diren gauza gero eta gutxiago dauden gizarte batean bizitzearen dramatismoa. Iraganeko esperientziaren balioa gutxitzen bada, etorkizunetik ikasi besterik ez dugu, "etorkizuneko esperientzia" dei geniezaiokeen trebetasun-multzo bat hobetzea, hala nola aurreikuspena, aurreratzea, prebentzioa edo pentsamendu estrategikoa.

13

**BURKEK** esaten zuenean benetako hezitzaile handia denbora zela, gurea ez zen gizarte batean pentsatzen ari zen, non denboraren joanak ez duen ezagutza metatzen, arazoak baizik, eta ez dugun denborarik galtzeko.

14

**DENOK** izango gara noizbait zahar, baina, neurri batean, atzeratu egin dezakegu une hori. Zahartzaroa, neurri batean, saihetsezina da, eta, neurri batean, erabaki baten xede.

## Aforismoak

15

**ADINAK** gauza onak eta txarrak egiten ditu gurekin, baina guk ere egin dezakegu zerbait ona edo txarra berarekin.

16

**GAZTETASUNA** gurtzearen eta zahartzaroa beneratzearen aurka: urteek ez gaituzte egiten, ezinbestean, ez adimentsuago, ez oroimen gutxiagoko. Adinak malguago edo zurrunago bihurtzeko aukerak ematen dizkigu; mugez gehiago jabetu gaitzke, etsipenaren ikaskuntza izan daiteke, baina urteek gure aurreiritziak finkatzeko eta gu gaitzespenean instalatuta geratzeko arriskua ere areagotzen dute.

17

**ZIBILIZAZIOAREN** lehen aurrerapena izan zen haurrak ez hiltzea, bigarrena zahartuta hiltzea eta hirugarrena zahartuta bititzea.

18

**BIZITZA** luzatzeak ez du ezinbestean kalitatea hobetzen, eta horrek frogatzen du teknologiak arazoen dimensio teknologikoa konpontzen duela, baina besterik ez.

19

**ILUSTRAZIOAK** adin-nagusitasunaren betebeharra adierazi zuen, eta bizitza-luzera berriaren politikek gaur egun gehiengo nagusiaren adinarekin zer egin galdetzen dute.

20

**HAINBAT** belaunaldiren arteko elkarbizitzak, gaur egun gizakien historian lehen aldiz bizitzaren luzapenari esker gertatzen den moduan, beste ezerk baino erronka handiagoak dakartzkio aniztasunaren kudeaketari. Belaunaldi desberdinetakoak direnek nazio, talde edo genero desberdinetakoek baino lehentasun eta interes heterogeneoagoak izan ditzakete.

21

**ASKOZ** hobeto ezagutzen ditugu pertsonen elkarrekiko ditugun betebeharrak belaunaldien artekoak baino.